

Santos Suinaga, kasta gogorreko matxindarra

Pelotarixa eta alkate. Ermuan ez dira bat eta bi horrek bi tituluok alkarrekin daroiazten gizonak. Hor zihar ikusi eta ikasitxakuak, aparteko mundulogia emoten otsien itxuria.

Santos Suinaga Ariño 1877. urteko Domunsantu egunian jaixo zan Ermuko plazan. Jose Martin Suinaga Gomiziaga eta Marta Ariño Areitio gurasuak ez eben pentsauko pelotari klan haundi baten sortzaille izan bihar ziranik: Matxindarrak. Casto eta Santos semeak eta Pako loibia. Ez da kasualidadia famelixa batek horrenbeste pelotari emotiak; Ermuko mutiko guztixendako, frontoia zan jokolekurik estimauena eta. Nononoz entzun izan dot oiñazian ikasi aurretik pelotan ikaste ebela. Santos bera ez zan urrin ibilliko, jakinda 14 urteko ume moko bat zala Madrillen jokatzen euala. Bere seme Santosoren esanetan: "Orduko pelotarixak zerauak ziran. Pelotia goitxik bota ezker, Ermuan be hara ostera jua ten zan, soluetara, ta gero topau ein bihar zenduan. Ha ez eitxeko, beti barruan sartzen ahalegindu bihar".

Entziklopedietan bere barri

"Matxin Txikito" moduan ezagutu eben, hiru urte za-

harraua izan eta "Matxin" modura jokatzen eban Casto anaia gandik desberdintzeko. Zesta-puntista modura ixa 40 urte emon zitxuan jokatzen, seme Santosek argitzen doskun modura: "Bene-tako zesta-punta gaiñera, puntiakin bakarrik jokatzen ebelako, pelotari dzi! potencia gehixao emoteko". Madrilen lehelengo eta Argentinan gero, urriñera jo eban. 1911an Maria Orbe Arriaga, "Matxin-txikiñeko" tabernako alabiakin Ermuan ezkondu ostian, barriro Madrillera abixau ziran andragizonok. Maria baiña Ermura etorten zan umeren bat jaixo bihar jakuen bakotxian. Eta hiru etorri be: Pako, Amparo eta Santos. Kirolari moduan serixua zan, joko garbikua eta bapebe harrotasun bakua. Makiñatxo txalo hartutakua bazan be, sekula ez eban afan usaiñik erakutsi. Profesional maillara ailegau zan, Primeran jokatua. Semiarren akorduz "orduan pelotarixak toreruak baiño gehixao kobratzen eben". Haranbururen "Diccionario Enciclopédico del Pais Vasco"n jasota dakar: "Santos



Santos Suinaga, 25 urtekin.

Suinaga, Machin Chiquito. Jugador puntista. Era muchacho de buena cepa, cadete de los dispuestos a alcanzar estrellas, pues nació pegando. Zaguero completo con aporte de dominar la bolea, comprendiendo lo que es el revés, entendiéndose a la perfección contra los reservistas, con mucha vista y siempre cubriendo su

puesto. Conquistó grandes aplausos y la simpatía del público".


Kuba, bigarren aberri

Bere abilezian erreparau ta, enpresia Kubara bialdu eban. 1901ian, La Habanako Jai-Alai frontoia inaugurau zanian, bertan euan. 20 tenporada ein zitxuan bertan;

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

"Zesta-puntista modura lha berrogei urte eman zitxuan Jokuan Santosek"

setienbrian ekitzen otsan eta uztailian, Karmenetarako bueltan etorten zan. Santosek Kuba beste, kubatarrek ermuarra estimatze eben: "el gran Machin" zan euren-dako. Lagun onak ein zitxuan han eta sarri esaten eban Kuba zala bere bigarren aberrixa. Amparo alabiak goguan dakaz aitzan esanak: "Gure moduan urten, dirua poltsikuan, iñoren zerik barik eta han gizon portatzen dana, harekin fixau zeinke. Er-muan, asko euazen orduan xemeikorik bez, zentimorik

bez ez ekenak; diruik barik dauana eta katian lotuta, der-rrigor ona izan bihar. Guk solteko bizimodua eruan gen-duan eta formal jokatu."

1924. urtian andriak eta Amparo alabiak Kubara la-gundu otsien. Zazpi urtetxo izan arren, Amparok ondo akorduan ditzu ha transatlantiko fransesa, "Lafayette", eta itsasuan eindako 9 egunak. Behin La Habanako frontoira sartu-urten bat e-itxera jua ei zan Amparo txikixa eta akorduan daka ointxe be: "Begitzen dot



Madril, 1892. "Matxin Txikito" k 14 urte besterik ez eta ordurako jokutzen.

kantxara eta aitxa, busti-busti einda izardixakin, oker-okar einda, zestuakin dzi!-dza! pelotok hartzen. 47 urte ekazen, ez zan umia. Baiña jokatu, dana emonda! Bustitxa ez zan ba egongo!". 1928-29kua izan zan Kubako bere azken tenporadia; han-gua laga eta Barzelonako "Novedades" en ein zitxuan beste urte batzuk. Pelotan ixa 40, ez zan makala gizo-na! Danetatik nausixena zan bera eta orduko egunkarixetako kroniken esanetan: "Matxin inoiz baiña hobeto dabil eta ikusleak pilotakadaz frontoitik atera behar dituela ematen du".

Alkate suertau

Pelotari laga eta Ermura erretirau zan. Alkate modura be ein zitxuan urtetxo batzuk: "Harek ez ekan politikarik. Jubilauta euan ta Partidu Nazionalistak bera ifintzia pentsau eban ta ezetz esaten otsen berak. Sekula ez eben urtetan, karlistak ekan urtietan be maiorixiori; eta 'etxuat ur-tengo bai' ta baietza esan otsen. Eta suertau zan itxuria euren aldekuak be botau ein zotsiela gure aitxari. Batzuk sekula ez otsien hori parkatu! Erdi-erdixan gerria ta horrek gauza txar guztiok suertau jakozan". 1932ko uztailaren 4a zan; sei boto bakarengaitxik irabazi eban. Alkatetza haren jesiñuaren gaiñian letratxu bakarra be ez dogu idatzitxa topau; udaletxeko liburu guztixak gerriak iruntzi zitxuan. Santos Suinagaren orde-z, 1937ko apirillaren 27ko udalbatzan, Bernardo Gara-

te 'Cantabria' izan zan alkate izendatua, pelotarixa berau be.


Gerra sasoian ebakuaute egon zan: "Bestelan harra-pau bazitxuezen, hilgo zitxuezen. Hamen, zaintzen, ezagunak ifiñi zitxuezen. Ger-ro Eibartik, euren eskopete-kin eta, CNTkuak eta... ga-nauterixa txarra etorri zan. Santanderrera martxau eben lehelengo eta han, puertuan daozala, sesenta añostik gorakuak eruan bihar zitxueze-la. Gure aitxak ez dakitx se-senta eukiko zitxuan, baiña egon ei zan euzkitxan urtiak gehixao emon deixezen, ar-pegixa baltzitzen. Gerran as-mau ein bihar!" diñosku Am-parok.

Sagar arteko zahartzarua

Abeletxe azpizan solotxo bat eken eta hantxe sagar arbola batzuk. Haraxe juatia gustatzen jakon ezer baiña gehixao, haretxek sagar edarrei kargua eixera: gazak, gaza-gozuak, libra-sagar-rak, bakotxa 700 gramutik gorakuak honek... Amparoren akorkuz: "Urtiak euki genduzan etxia bete-bete einda sa-garrez. Peoran sartu bai ta sagarrena egoten zan, usain bat edarraua! Urte baten, negu ona ein itxuria, ta jua bai Ziarreko bueltara, begitxu bai Abeletxe azpira ta zuri-zuri ikusten zan dana, sagarrok loran euazela. Gaz-te denporako ipoiñak!".

Santos Suinaga Ariño, urte mordotxua etxetik kanpo eiñ ostian, 1970 irailaren 18xan hil zan, Ermuan eta etxian. Nun hobeto?

Estibalitz González



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50